

ELKARTEAK

Gure produktuak arrakasta eduki dezan, beharrezkoak dira gure inguruko elkarteak zeintzuk diren finkatzea. Gure ideia aurrera eramateko beharrezkoak ditugun baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortu beharko dugu. Gainera, akordio batera iritsi beharko gara enpresa edo elkarte batekin gure ideiak aurrera egiteko eta elkarrekin lana egiteko.

Enpresa elkarte horiekin lan egingo dugu, baino guk ere edukiko dugu gure lokal propio bat bulego bezala erabiliko duguna, bertan bilerak egingo ditugu beste enpresako kideekin akordioetara iristeko, bezeroekin elkartzeko edozein duda badute... Hau da, bilera bat egingo bagenu, gure lokalean edo enpresaren lantokian bilduko ginatete; eta hau lortzeko, UGGASArekin kontaktuan jarri beharko gara, 30 euroren truke, lokala, ura, argia eta interneta eskaintzen dizkigute.

Edozein negoziorekin hasteko beharrezkoa da dirua edukitzea, eta horretarako bankuari mailegu bat eskatzea pentsatu dugu, gure proiektua aurrera doan einean mailegu hori ordaintzen joango gara. Bankuari 5.000 € eskatuko dizkiogu, gure proiektuarekin hasi gaitezen.

Gure produktuarekin hasteko, De Buyer enpresarekin (zartagin eta sukaldeko tresnen fabrikatzailea) harremanetan jarriko gara, teknologikoki laguntza handia emango digulako eta horrela, gure zartaginari beroa ematen dion plakaren funtzionamenduarekin lagunduko digute. Hau da, materialen eskuragarritasuna bermatuko digu.



DECATHLON

Decathlon enpresarekin ere edukiko dugu harremana, bertan gure produktua saltzeko aukera emango digutelako eta horrela pertsona gehiagorengana iritsiko da. Geroago beraien duten webgunean jarriko dute gure produktua, jende gehiagok erosi ahal izateko. Forum Sport enpresarekin berdin jokatu dugu gure produktuaren salmentak ahalik eta arrakasta handia eduki dezan, lehenik beraien denda fisikoetan eta geroago beraien webgunean ezarriko dute.

Gure produktua etxeetara iritsi ahal izateko garraio enpresa batekin egingo dugu lan, zehazki Correos enpresarekin egingo dugu



lan garraioa, enpresa azkarrena eta erabilgarriena delako gure ustez. Horrekin, beraiekin biltzeko, gure lokalean edo beraien bulegoan bilera bat egingo dugu, akordio batetara iritsi gaitezen.

Proiektuarekin aurrera egiteko, bankuaren laguntza beharko dugu, bankuari mailegu bat eskatuko diogu, proiektuarekin hasteko dirua behar dugu eta. Horregatik, banku guztien interesak ikusi eta aztertu ondoren, BBVArekin harremanetan jartzea adostu dugu.



Gainera, zartagina erabili ondoren, funda baten erabilera eduki nahi dugu, erabilgarrigoa izateko, eta zartaginak motxila guztian uzten duen usaina ahalik eta gehien sahiesteko. Funda hau lortzeko Gift Campaign enpresarekin jarriko gara harremanetan, gure zartaginaren neurriekin bat datozen fundak lortzeko. Horregatik, enpresa honekin akordio batera iritsi nahi dugu guri fundak saltzeko.

Azkenik, elkarte guzti hauekin harremanetan jartzea lortzen badugu, gure lana asko erraztuko da, gure produktua zabaltzea lortuko dugu eta gure helburuak beteko dira.